## KULTURA BATZORDEAREN BILERAREN LABURPENA

**2014ko abenduaren 16an**
**ORDUA**: 19:00
**LEKUA**: Udaletxeko batzar gela
**BERTARATUAK:**

1. Mª Isabel San José, Iruritako Dantzariak
2. Eduardo Zubikoa, Museoaren lagunen elkartea
3. Borja Nagore, Elizondoko Banda
4. Belen Aleman, Elizondoko abesbatza
5. Ana Oteiza, Elizondoko abesbatza
6. Maitane Maritorena, Bilduko zinegotzia
7. Ana Larruy, Udaleko Kultura teknikaria

### EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK

**1. Aitzineko aktaren onestea**

2014ko ekainaren 3ko Kultura Batzordearen aktaren laburpena irakurri zen. Batzodekideak ados egonik, akta aho batez onetsi da.

**2. Dirulaguntzen baldintzak oroitaraztea.**

Maitane Maritorenak: Kultur batzorde batean onartu zen bezala, diru-laguntzen legea indarrean dagoenaren arabera, deialdiaren baldintzak eta irizpideak eskaerei aplikatu dizkie. Tokiko Gobernu batzordean diru-laguntzen banaketaren proposamena onartuko da eta ebazpenak jasoko dira. Diru-laguntzak gastuak justifikatu ondoren, ordainduko dira. 2015eko urtarrilaren 15 artio gastuak justifikatzeko epea akitzen da.

Eduardo Zubikoak: deialdiari buruz, denbora oso luzea iruditzen zait kobratzeko urte bat eta hamabost egun itxarotzea. Datorren urtean Bidasoko talentu gazteen kontzertu batzuk antolatu nahi ditugu eta arazo batzuk sortzen zaizkigu, hau da, nola aurrera eraman gastu horiek, garraioak, alojamenduak... Bertze aldetik, Literaturari buruzko aste bat antolatzeko idazleak etortzen dira irabazteko asmorik gabe eta ezin dute kobratu haien argitaletxeekin kontratu bat dutelakoz. Deialdia dagoen moduan ezin dugu Udalaren diru-laguntzarekin kontatu.

Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak bi epetan ematen ditu, bat ekain artio eta bertze bat abendu artio; edo bertze proposamen bat izango litzateke deialdia aurreratzea.

Maitane Maritorenak: diru-laguntzek baldintzaturik antolatzea arriskutsua da, jarduerak antolatzen ditugu gure ahalmenaren arabera. Modu partikularrean eta adibide gisa, errane dut Ilbetza programazioa diru-laguntzarik eskatu gabe antolatu dela.

Diru-laguntzen deialdia egin behar dira udal aurrekontuak onartutakoekin, eta martxoa artio gutxienez ez dira onartzen, gainera aurten hauteskundeak dira.

## *RESUMEN REUNIÓN DE LA COMISIÓN DE CULTURA*

***16 de diciembre de 2014***
***HORA**:19:00*
***LUGAR**:Sala de Reuniones del Ayuntamiento*
***ASISTEN:***

*1. Mª Isabel San José, Iruritako Dantzariak*
*2. Eduardo Zubikoa, Amigos del Museoa*
*3. Borja Nagore, Banda de Música Recreo*
*4. Belen Aleman, Agrupación Coral de Elizondo*
*5. Ana Oteiza, Agrupación Coral de Elizondo*
*6. Maitane Maritorena, concejala de Bildu*
*7. Ana Larruy, técnica municipal de Cultura*

### *DELIBERACIÓN Y ACUERDOS*

***1. Aprobación del acta anterior***

*Se dio lectura al resumen de la reunión de la Comisión de Cultura del día 3 de junio de 2014. Al darse acuerdo, se aprueba por unanimidad.*

***2. Condiciones de subvenciones***

*Maitane Maritorena: tal y como se aprobó en comisión de*
*Cultura, de acuerdo con la ley de subvenciones vigente, se han aplicado a las solicitudes los criterios y las condiciones de la convocatoria. La propuesta se ha aprobado en Junta de Gobierno Local y se recibirán las resoluciones. Se abonarán una vez justificados los gastos, el plazo de presentación de justificantes concluye el día 15 de enero de 2015.*

*Eduardo Zubikoa: sobre la convocatoria, me parece un tiempo muy largo esperar para cobrar un año y quince días. El próximo año queremos organizar unos conciertos de jóvenes promesas del Bidasoa y nos surgen algunos problemas, cómo llevar adelante esos gastos, los desplazamientos, alojamientos… Por otra parte, para organizar una semana literaria, los escritores vienen sin ánimo de lucro porque tienen un contrato con sus editoriales y no pueden cobrar. Tal y como está la convocatoria no podemos contar con la ayuda del Ayuntamiento.*

*El Gobierno de Navarra da las subvenciones en dos plazos, una hasta junio y la otra hasta diciembre, otra propuesta sería adelantar la convocatoria.*

*Maitane Maritorenak: es arriesgado organizar dependiendo de las subvenciones, las actividades las organizamos según nuestra capacidad. A modo particular y como ejemplo, la programación Ilbeltza se ha organizado sin solicitar subvención.*

*La convocatoria de subvenciones hay que realizarlas con los presupuestos municipales aprobados y por lo menos hasta marzo no se suelen aprobar, este año además están las elecciones.*

| | |
|---|---|
| Erabaki da aurreko proposamenak Udaleko idazkariarekin kontsultatzea. | *Se toma del acuerdo de consultar con el secretario municipal las propuestas anteriores.* |
| **3. Agendaren banaketa izan diren aldaketak.**<br>Maitane Maritorenak: orain artio agenda banatzen da Baztango herrietan posta bidez eta Elizondon Maila Posta zerbitzuaren bitartez. Irailean mantso ailegatu zen. Postetxekoekin hitz egin genuen eta erran ziguten zazpi postaritatik hiru baizik ez zirela lanean. Orain Zaragozarat bidaltzen dute posta eta gero Elizondorat itzultzen da. Hortaz, Baztango banaketa aldatu dugu eta Mail Postarekin eginen dugu.<br>Ohartzen bazarete agenda gibelaturik ailegatzen zaizuela, abisatu faborez. | ***3. Cambios realizados en el reparto de la agenda.***<br>*Maitane Maritorena: hasta ahora la agenda se reparte en los pueblos del valle por medio del servicio de correos y en Elizondo por medio de Mail Posta. En septiembre llegó tarde. Hablamos con correos y nos dijeron que de siete carteros tan solo estaban trabajando tres. Ahora envían todo el correo desde Elizondo a Zaragoza y luego vuelve a Elizondo, por eso, hemos cambiado y realizaremos todo el reparto en el valle con Mail Posta.*<br>*Si os dais cuenta de que la agenda os llega con retraso, por favor, avisar.* |
| **4. Kirola-kultura biorrikoa.**<br>Maitane Maritorenak: Laxoa elkarteko kideekin, Tiburtzio Arraztoarekin eta Iosu Primekin izan genuen bilera bat. “Baztan natura eta kultura bizi” proiektuaren barnean laxoari buruzko biorriko bat argitaratzeko. Biorriko horretan botarri zer den edo Baztango herri bakoitzean zer dagoen jakiteko informazioa agertuko da. | ***4. Díptico de Deporte-Cultura.***<br>*Maitane Maritorena: nos hemos reunidos con miembros de la asociación Laxoa, Tiburcio Arraztoa y Iosu Prim, para publicar un díptico sobre Laxoa dentro del proyecto “Baztan Natura y cultura viva”. En este folleto aparecerá información referente a qué es un botarri o de lo que hay en cada pueblo.* |
| **5. Museoko Unitate didaktikoa**<br>Maitane Maritorenak: Euskal Herriko Unibertsitatearekin egindako hitzarmen baten bidez Museoa bisitatzeko unitate didaktikoak egin dira eta eskoletarat igorriko dira.<br>Jasotzeko interesa duenak eska dezala eta igorriko diogu.<br>Eduardo Zubikoak eta Belen Alemanek interesa dute. | ***5. Unidades didácticas del Museo.***<br>*Maitane Maritorena: por medio de un convenio con la Universidad del País Vasco se han confeccionado unas unidades didácticas y se enviarán a las escuelas.*<br>*El que tenga interés que las solicite y se las enviaremos.*<br>*Eduardo Zubikoa y Belen Aleman muestran interes.* |
| **6. Arizkunenea Kultur Etxeko erakusketa gelaren gutxienezko ordutegiak eta datak finkatzea.**<br>Maitane Maritorenak: uda honetan erakusketa aretoa egun gutxitan egon da zabalik. Arizkuneneko erakusketa gelak erabiltzeko araudien ez dira irekitzeko bete beharreko gutxienezko egunak eta orduak zehazten.<br>Eztabaidatu ondoren erabaki da eskatzaileak Arizkuneneko erakusketa gelak egunero gutxienez bi ordu ireki beharko dituela, igandeetan izan ezik. | ***6. Establecer horarios y fechas mínimas de la Sala de Exposiciones de la Casa de Cultura Arizkunenea.***<br>*Maitane Maritorena: este verano la sala de exposiciones ha estado pocos días abierta. En las bases que regulan el uso de las Salas de exposiciones de Arizkunenea no aparecen las horas y días mínimos obligatorios de apertura.*<br>*Después de deliberar se decide que el solicitante deberá abrir la Sala de exposiciones todos los días por lo menos dos horas excepto los domingos.* |
| **7. Arizkuneneko sabaiaren erdian oholtza bat paratzeko proposamena**<br>Maitane Maritorenak: Ruper Ordorikaren kontzertuan norbaitek Arizkuneneko sabaiaren erdian oholtza bat paratzea proposatu zuen. Mikel Ortegarekin hitz egingo da Udaleko oholtzaren neurriak aztertzeko edo laminatu beltza paratzeko. | ***7. Propuesta de colocación de un escenario en la mitad del desván de Arizkunenea***<br>*Maitane Maritorena: en el concierto de Ruper Ordorika alguien propusó que se colocase un escenario en la mitad del desván. Se consultará con Mikel Ortega para estudiar las medidas del escenario municipal o colocar un laminado negro.* |
| **8. Galde-eskeak**<br>Belen Alemanek: modu partikularrean Legate elkartekide bainaiz, gustatuko litzaidake jakitea zer antolatzen den bertze herrietan eta harremanetan jartzeko telefonoak lortu nahiko nituzke. | ***8. Ruegos y preguntas***<br>*Belen Aleman: a modo particular como socia de Legate le gustaría saber qué es lo que se organiza en otros pueblos y conseguir contactos.* |

| | |
|---|---|
| Maitane Maritorenak: jarduera guztiak agendan agertzen dira eta kontaktuak lortzeko galdetu ahal diozu Ana Larruyri. | *Maitane Maritorena: todas las actividades aparecen en la agenda y para conseguir los contactos puedes preguntárselos a Ana Larruy.* |
| Bertze aztergairik ez dagoenez bilera 20:15ean akitu da. | *Y no habiendo más temas que tratar finaliza la reunión a las 20:15.* |
| Ondoko kultura batzordea martxoan eginen da. | *La próxima comisión se realizará en el mes de marzo.* |
| Baztanen, 2015eko urtarrilaren 5ean. | *Baztan, a 5 de enero de 2015* |